

Abenduaren 18an, Ate Irekiak online

2012/12/13

Datorren asteartean, abenduak 18, Mondragon Unibertsitateak, Ate Irekien saio bat emitituko du online formatuan.

18:30etan euskaraz izango da emisioa eta 19:30etan berriz gaztelaniaz.

Saio bakoitza bi zatitan banatuta egongo da. Lehenengo 15 minutuetan, 2013-2014 ikasturterako Mondragon Unibertsitateak duen graduen eskaintzaren inguruan hitz egingo da eta ondoren, ikusleek egiten dituzten galderak erantzungo dira.

Ikusleek galderak egin ditzaten, saio guztian zehar, txat bat aktibatuta egongo da eta bertan jasotzen diren galderak erantzungo ditugu sarrera ordena errespetatuz. Denbora medio dela zuzenean erantzun gabe geratzen diren galderak, hurrengo astetik aurrera, www.mondragon.edu/prest helbidean, galde-erantzunen atalean argitaratuko dira erantzun guztiekin.

Ezin bazara unibertsitatera hurbildu, zeure etxetik informazioa zuzenean jasotzeko aukera daukazu saio hauetan.

Lehenengo edizioko emisioa hemen ikus dezakezu.

